

Bixente Serrano Izko

Azpijokoak euskaraz, noizko?

B

ertze batzuetan errana naiz, euskara hizpide, nekez eginen dugula ezer gure hizkuntza honen alde sinbologiarik gabe, baina ihes egin behar diogula euskara bertze gauza baten sinbolo bihurtzeari, dela ideologia batena, dela bizitza-eredu zehatz batena.

Euskara zikinaren aldeko aldarrikapen sutsu eta eskertzekoa egin du orain gutxi Irati Jimenezek, ea gai garen ideologia guztietakook, bizimodu guztietakook, gustu on edo txarreko guztiok, euskaraz adierazteko geure ametsak, geure gorrotoak, geure bihotz eta buru-aldrebeskeriak, ea gai garen, baita ere, euskararen beraren aurkako mezurik zikinenak euskaraz jasotzera ohituzeko. Horretarako, noski, utikan mundu garbi baten alde sinbolo bihurturiko euskara. Urrun gaude oraindik Irati Jimenezen planteamendu zikin horietatik, praktikan bederen. Gure hizkuntza hau identitate eta mundu eredu baten aldeko sinbolotzat jotzen jarraitzen dugu, kontzienteki sarritan, inkontzienteki ere gainerakoetan. Eta ez gara kontziente, adibidez eta barkatu atrebentzia, euskaradun gutxiago lortuko dugula, euskarak euskaldun egiten gaituelako lelo soil eta lehen itxura batean xarmant horren antzekoekin.

Baina euskara bertze gauza anitzen sinbolo ere bihur daiteke, eta bihurtzen ari zaigu. Errate baterako, Nafarroan dagoneko hiru aldiz errepikatu den ezgaitasun baten ikurra, euskaltzaleon ezgaitasunarena alegia, hizkuntz politika publikoa aldatzerakoan, zenbait puntutan Euskararen Legea erreformatzerakoan. Legea gehiengo jakin batek inposatu zuenetik igaro diren hamarkada luzeetan, hiru parada izan ditugu gehiengo hura aldatzeko, eta hiruretan kale. Eta guztietan, itxura osoz, teoriarik behintzat euskaltzaleenak direnek, abertzaleek –euskara mundu berri baten ikurrik kuttunena dutenek hain zuzen–, huts egin izanagatik, dela adabakigintzari uko egin nahi izan ziotelako (oi, kontsumismo zalekeria zaharkitu hori, birziklatzearen aldeko ideia berrien garaiotan!), dela parlamentari batek ibili nahi izan duelako munduko gailurrik altuenetako magaletan, gure bazterretako politikagintza lau honetatik ihesean.



MIKEL SMITZ

Euskara sinbolo, azken buruan, legebiltzarrean oposizio lana egiteko ezgaitasunarena. Dudak izan zituzten askok Nafarroa Bai bezalako koalizio bat gai izanen ote zen gobernatzeko, bertze alderdiekin gobernu-koalizio korapilatsuago bat egin behar baldin bazuen. Zaila izanen zukeen, baiki. Baina nago are zailagoa dela horrelako koalizio batentzat oposizio nagusiarena egitea. Izan ere, Andreotti politikari famatu haren ideia bat ekarri du gogora orain berri Juan Carlos Longasek: aginteak higitzen ditu indarrak, bai horixe, baina are gehiago oposizio lanak. Zer erranik ez, lan hori alderdi ustez kohesionatu batek ez, alderdi anitzetako koalizio batek egin behar duenean. Eta are gehiago, legebiltzarreko bigarren indarrak lehia bizian ibili behar duenean hirugarrenarekin, nork irabaziko domina agintedunak kontrola-

◀

Andreotti politikari famatu haren ideia bat ekarri du gogora orain berri Juan Carlos Longasek: aginteak higitzen ditu indarrak, bai horixe, baina are gehiago oposizio lanak. Zer erranik ez, lan hori alderdi ustez kohesionatu batek ez, alderdi anitzetako koalizio batek egin behar duenean

▶

tzeko merituetan. Eta are gehiago, hirugarren horrek gobernuarekin hitzartu duenean berak jasotzeko domina, agintedunei zeharka sostengua ematearen truke. Hots, hirugarren hori, oposizioko lehiakide ez ezik, aurkaria ere denean. Zer azpijoko egiteko prest ez ote den egonen lehiakide eta aurkari hori oposizioko premua barrengarri eta ezgauza geldi dadin? Zer kortesia eta zer kortesia ondo espero dezake premuak horrelako bigarren batengandik?

Baiki, joko zikinen eta berauei aurre egiteko geure ezgaitasunaren sinbolo ere bihurtu zaigu euskara. Eta nago horrela ez dugula inoiz lortuko zikinkeria horiek euskaraz jasatea. ■